

## 1.2.2 GAIAREN LANKETA

### > Familia hiztegia



### - Asmatu II

#### Helburuak

- Familia harremanen hiztegia ikastea.
- Familia harremanen hiztegia erabiltzea eta egiturak finkatzea.
- Orain arte ikusitakoa erabiliz testutxo bat idaztea.

#### Prozedura

- Bi edo hiru talde egin gelako umeekin eta taldeei A fitxa (talde bakoitzari ezberdina) eta B fitxa banatu. Nahi izanez gero, asmatu I fitxa eskuartean izateko esan.
- Ditutzen irudiekin familia bat sortu behar dutela esan: gurasoak zeintzuk izango diren erabaki, anai-arreba bakoitzari izena eman... gero, pertsonaietako bat aukeratu eta honen izenean, idatzi familiaren aurkezpena.
- Behin taldeek egitekoa bukatzean, hezitzaileak lanak zuzendu eta taldeen artean fitxak aldatu.
- Beste taldekoek idatzitakoa irakurri eta, horren arabera, familia-harremanak zehaztu eta laukietan itsatsi.

#### Oharra

- Komeni da asmatu I eta asmatu II fitxak jarraian egitea. Bigarren fitxan lehenengoan ikusitakoa errepikatu beharko dutelako.